

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko martxoak 18 / IV. urtea / 119. zenbakia



XABIER LANDA, 'PELOTARI'

Duela ehun urte, 1894an, Antxitonea deritzaion etxearen gibleko aldean trinketa egitea erabaki zuenak ez zuen buruan izanen, hain

segur, ehun urte pasata zutik ezezik historiaz beteta iraungo zuenik.

Baztango historiaren parte bat bete baitu trinketak. Hasieran pilota partiduak, hala nola 1922ko abenduaren 2an Dongaitz anaiek irabazitakoa.

Ondoren eta bitartean ere bertso saioak, 1936ko urtarrilaren 12an egin zen lehendabiziko Nafarroako Bertsolari Txapelketa, esate batera; tartean ezteiak, Orakunde egunak eta mitinak ere bai... azken igandera arte, bertan ospatu baitzen aurtengo Bertsolari Txapelketaren saioetako bat. Elizagoienek zioen bezala, «euskal kulturaren zimendu ta oinarria».

Antxitoneak ehun urte

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Egunsentiko bi aldeak

Hitzek neutralak behar dute izan baldin eta, gauzak, gertaerak eta sentimenduak zehazki mugatu nahi baditugu. Hitza, alde horretatik, zenbat eta zehatzagoa den, orduan eta hobeto ulertzen diogu elkarrri. Eta are gehiago nork bere burua ere bai. Hitzak, ahatik, neutroa behar du izan, bai, baina hitzegilea, sekula ez, ordea. 'Egunsenti' hitza aipatzen badugu, badirudi bat gertozkeela guziok haren adieraziarekin. Hala ere, bere laneguna zaborrak biltzen hasten den kale garbitzailearentzat eta eguzkiaren lehen printzekin batera etxeratzen den gautxoriarentzat, gertakizun fisiko bera da egunsentia, baina, ezin esan hitz beraren aitzinean sententzio berdina sentituko dutenik barnera. Hala guzuz, nork bere esperientziaren arabera epaituko du hiztegia. Esate batera, makailua ez da jadanik soilik Terranobako arrain preziatua edo dastatzeko platera gozoa, honez gain, zenbait gazteren dunba-dunba edo Europako batasunerako oztopo/aitxakia ere bada, bidenabar.

Etenik gabeko hitzen epaiketa gogorean ari dira, bestalde, bake eta elkarbizitza politikorako euskal taldeak, egoera nahaspilatsu honi irteera bat bilatu asmoz. Aidanez, trebeki gaintutua dituzte dagoeneko alderdi politikoen hitz gotorlekuak eta, harreresiei halako bira eginez, hitz eremu zabaletara eraman dute eztabaida. Bakea, indarkeria, gatazka politikoa, elkarrizketa, negoziaketa, distentsioa, krispazioak... eta beste hitzez osatutako mataza korapilatsuari ekin diote askatzeari, hainbat hitz —hil ala bizikoak— beren adierazi biluzian erakutsi dizkigutelarik.

Ikusmira ezberdinetatik —jarrera kontrajarrietatik, batzutan— gogotsu ari dira lanean talde hauek, batzuk eta bestek eraiki dituzten/ditugun hitz gazteluak birrintzen. Betiko hitzak erabiliz baina beste hiztegi bat besopean daramatela, irtenarazi gaituzten nor geure aterpetik, errezeluz hasieran nahi bada, baina, zergatik ez esan, itxaropentsu, finean. Antzeko ariketa egingo al dute Ebroz bestaldekoek?

Dena den, arazoa ez da gramatikala, nahiz semantikak bere pisua duen. Ekuazio matematiko batean argitu behar den inkognita gisara ere, ez da. Akaso, afera hau lanegunen batean argitu diezaguke kale garbitzaile eta aldi bereko gautxori horrek, azal diezagun ere, gauza bada, jakina, nola demontre barneratzen dituen egunsentiarren bi aurkako adierazi haiek, hitz bakar batean, eta bat ere asaldu gabe.

GURE AUKERAK

MINTZALDIAK

'Pobreziaren feminizazioa' izeneko gaiaz hitz egingo du heldu den asteartean, hilak 22, Dolores Juliano irakasleak. Asteazkenean, GITE elkarteak antolatutako zikloaren barruan, 'Arabiar munduko emakumeak' gaiari buruz ariko da Caridad Ruiz irakaslea. Biak arratsaldeko 19.30etan hasiko dira, Nafarroako Museoaren ekitaldi aretoan.

Edorta Jimenez idazleak hitz egingo du heldu den asteko asteazkenean, hilak 23, Zaldiko Maldiko Elkarteak. 'Azken fusila' bere azken liburuari buruz ariko da, arratsaldeko 20.00etatik aurrera.

Nekazaritza ekologikoari buruzko mintzaldia eskainiko du heldu den astelehenean, hilak 21, Jose Uranga Biolur taldeko kideak. Eguzki taldeak antolatutako ekitaldien barruan, Burlatako Hilarion Eslava ikastetxean izanen da, arratsaldeko 20.00etan. Hitzaldia euskaraz izanen da.

ZINEMA

'Mediterraneo' izenburuko pelikula eskainiko dute heldu den asteko ostegunean, martxoak 24, Tafallako Español zineman. Herriko Kultur Patronatoak antolatuta, bi saiotan eskainiko dute, bata arratsaldeko 20.00etan eta bestea gaueko 10.30etan. Sarreak 200 pezetan salduko dituzte.

'La esclava del amor' izenburuko filmea botako dute heldu den asteartean, hilak 22, Iruñeko Olite zineman. Nafar Ateneoak antolatutako Zinema Sobietarrari buruzko zikloaren barruan, arratsaldeko 20.00etan hasiko da. Bazkideentzat sarrera dohainik izanen da.

MUSIKA

'Bizkarrezurra', 'Censura' eta 'Eskonbro' musika taldeen kontzertua izanen da larunbat honetan, martxoak 19, Irurritako erreboteko plazan. Herriko gazteak antolatuta, gaueko hamaiketan hasiko da.

Tapia eta Leturia, 'BAP' eta 'Exkixu' musika taldeak ariko dira gaur, martxoak 18, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Euskal Jaia dela eta. Kontzertua bazkal ostean hasiko da, eta sarrera dohainik izanen da. Bazkal aurretik ere ekitaldi ugari izanen dira: talogileak, ginkana, malabareak, zarpantzarra, txalaparta, eta abar.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Manumisioa

Zinez aspergarria, ia bihotza galtzeko modukoa da, larriagorik ez denean, 'abc' demokratikoaren eskubide oinarrizkoen alde argudiatzen ibili beharra, noiz eta El Ferroleko Txikia hil zenetik hogeitau urte aurki beteko direnean, eta ahaleginak edonor oso toki, denbora eta modu ez ohizkoetara eramane dezake betikoak soineko berriez janzteko xedez, aintzineko Erromara, adibidez, non, denok dakigunez, esklabuak bizi ziren. Esklabuak, Erromako zuzenbidean, ez ziren pertsonak, animaliak —labezomorroa, katu, zaldia...— bezalakoak baizik. Hortaz, ez zuten eskubiderik ('servile caput nullum ius habet'), ezta bakar bat ere. Alabaina, zenbait kasutan, 'de facto', gizakien mailara hurbiltzen zituzten egoeretan bizi izan ziren, eta hala, harreman iraunkorrik eduki ahal zuten beste esklabu batekin ('contubernium'). Ez beti, jakina; jabeak baimen ematen zuenean baino ez. Egun probintzia edo dena delako honi izana eman ziona esklabua da berak bataiatutako eremu zabaletan, eta horren ondorioz gu guztiok ere esklabu izaeratik zerbait badugu; kontubernio xeble samarrak

egin behar izaten ditugu gure pekulio urriarekin bizi ahal izateko, eta jabea mehatxuka aritzen zaigu maiz, kontuz Espartakori jaramon egitearekin, bestela itsasora, galeretara bidaliko zaituztet eta, edo labezomorroak bezala zanpatuko. Oraingo jabeak —Grako, demagun—, ongi portatu ezkeru unibertsitatez —mintza gai-

ahal zaion Nafarroako gizarteari bere alderdi nagusietako jokabideetan atzematen den fede txarra, herra gaiztoa eta borondate demokratikorik eza, gai jakin batzuetan, bederen. Dakidana da nafarren ehuneko 90ak gainerako guztiak labezomorroak bailiran 'CUCCHOL-ek' fumigatzea erabakiko balu, erabakia, ez bairik



tezen unibertsitateaz, horixe—bidaliko gaituela promesa egin astelehenean eta asteartean hitza jan lo gaizki egin duela aitxakia hartuta. Baina ez kezkatu, horretan huts eginik ere luze gabe 'ankerragoa da Sila', makakorroka, ekingo dio zenbait. Historiak erakusten duenez, ez ziren gauza handirik nekatu esklaboak manumititzen (latinetik, 'manumissio'), askatzen, alegia, ez Grako eta ez Sila.

Ez dakit noraino egozten

gabe, zeharo maioritaria izango litzatekeela; ez ordea demokratikoa. Susmatzen dudana da datorren astean Parlamentuan eztabaidarako sartuko den aldaketa zenbait alderdi politikoren espektatiba elektoralei datzekiela, eta horretan datza benetako interesa —haien interesa—, inongo interesik egotekotan. Seguru nagoena da gaiak ez duela horren perspektiba motza merezi. Manumisioa euskararentzat.

ASTEKO PERTSONAIAK



Karmelo Landa
HBko europarlamentaria

Juan Cruz Alli lehendakariarekin bildu da aste honetan Karmelo Landa Herri Batasunako europarlamentaria. Helburua, alderdi abertzaleak Europarako duen proiektu «alternatiboaren» berri ematea zen, bilera ostean Landak adierazi zuenez. Era berean, Nafarroak eta Euskal Herri osoak Bruselan ordezkaritza zuzena behar dutela ohar-tarazi zion exekutiboaren buruari. Bilera honetaz gain, beste bisitaldi batzuk ere egin zituen Landak Nafarroan. Lesakako Laminazioetan, Landabengo Seaten, Larrungo nekazariarekin, Cederna-Garalur elkartearekin, Itoizko koordinakundearekin urtegiko lanak ikusten, eta hainbat talde antimilitaristekin... Guztiaren eskaerak Europara eramateko asmoa agertu zuen. Ez du, ez, lan erraza izango.



Luis Campoy
UPNko parlamentaria

Orabehera ugari izan dira UPN alderdiaren barruan egun hauetan, eta dirudienek, Alli lehendakariak ez du lortu nahi zuena, hau da, Javier Pomes izendatzea Europarako hautagai bezala. Bi bilera eta lau bozketa egin ostean, Luis Campoy parlamentariak lortu du postua, hasiera batean mundu guztiak Pomesen izena aipatzen bazuen ere. Asteburuko bozketan, Pomesek lortu zuen batzorde eragilearen sostengua, baina Erregio Kontseiluak, azken finean erabakitzen duenak, Campoy izendatzea erabaki zuen, Allik kontrako nahi bazuen ere. Egoera honek barne arazoak sortu ditu alderdian, Sanz eta lehendakariaren artean, hain zuzen. Baina beraiek lasaitasun itxura eman nahi dute, eta Sanzek berak azaldu zuen ez dagoela inolako arazorik.

AHAZTU GABE!

LASTERKETA



Ohizkoa denez, aurten ere, aurretik bezala, Etxauriko lasterketa izanen da igande honetan, martxoak 20. Honekin, hamaseigarren edizioa ospatuko da, aurreko guztien modura, Denok Bat herriko elkarteak antolatuta. Froga goizeko hamaika t'erdietan hasiko da, eta ibilbidea ohizkoa izanen da, hau da, Etxauriko portuko zazpi kilometro t'erdia. Lasterketan edozeinek parte har dezake. Aurretik egin behar duen gauza bakarra izena ematea da, ehun pezeta ordaindu eta gero. Lasterketa hasi arte epea zabalik dago. Antolatzaileek adierazi dutenez, lasterketa guztian medikuen asistentzia ziurtatuta dago, edozein arazoa sortuko balitz. Era berean, bi horniketa puntu izanen dira ibilaldian. Aurtengo edizio honetan, antolatzaileek mail bat besterik ez dute jarri, eta guztiak lasterketa berbera eta maila berberan ariko dira. Hiru sari izanen dira, lehendabiziko hirurentzat: trofeo eta dirusaria (25.000, 15.000 eta 5.000 pezetakoa). Aldi berean, lehen emakumea, zaharrena, herriko gazteena eta herriko lehendabizikoarentzat ere izanen dira trofeoak. Lasterketa hasi baino ordu bete lehenago, eta ohitura bihurtu denez, Julio Sanchez txirrindularia saiatuko da mendatea atzeraka igotzen.

JENERO XUMEKOAK

Giro txarra poesiarako

Denbora latzak poesia-rako. Gainera Andoni Aizpuruk freskatuko duela iragarria du.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazkenean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Abaurrepea

Ostatu berria zabaldu da

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

Sarobe izeneko ostatu berria inauguratu zen joan den larunbatean Abaurrepean, Nafarroako Gobernuko ordezkariak bertan zirela. Eskola zaharren eraikina berrituta, 41,5 milioi pezetako kostua izan du proiektu honek, eta hogeita bi ohe —zortzi logelatan banatuta—, jatetxea eta taberna prestatu dira. Finantzaketan Abaurrepeko Udalak, Nafarroako Gobernuak eta Cederna-Garalur elkarteak hartu dute parte.

Larunbatean Joaquín Labiano Merkataritza eta Turismo zuzendaria, Javier Baztarrika Cederna-Garalurreko gerentea, Jose Luis Laspalas Abaurrepeko alkatea eta Miguel Angel Del Rio Aezkoako Juntako presidentea azaldu ziren bertara, eta denek azpimarratu zuten dekorazioa eta ostatuaren txukuntasuna. Igan-dean hamaiketako prestatu zen herriko jendearendako, eta ostata errentan hartu duen bikoteak dituen asmoak azaldu zizkion jendeari. «Bertakoekin lan egin nahi dugu» dio Ana Amillanok, «eta hemengo produktuak eskaini nahi dizkiogu etortzen denari, inguru ere berpiztu dadin».

Horretarako garaiko produktuak menuak prestatzeko asmoa dauka Jon Ugalde sukaldariak, beti ere inguruko produktuak aprobetxatuz. «Ehiza, ondoak, perretxikoak, amurrainak, basa



Ostatua eskola zaharren eraikinean dago.

JOXE ETXEGOIEN

fruituak, denetarik sartu nahi dugu menuan, hemengoek ere beraiena bezala ikus dezaten. Horregatik, jendea animatu nahi dugu etxean biltzen duena guri saltzeko, edo beraiek egiten badute, hona ekartzeko, jendeak eros dezana. Berdin artisau-lanekin edo dena delakoarekin». Logelak zortzi dira, bikoitzak denak, eta lau 12 metro karratukoak. Bitan

beste ohe bat para daiteke, 19 metro karratukokak baitira, eta beste bi *duplex*-ak dira, 37 metro karratukoak. Guztietan komuna, telebista eta telefonoa dago. Logela bakoitza 5.700 pezeta kostako da, gosaria barne.

Udan eta Aste Santuan erantzun ona izango dutelakoan, neguan eta asteen zehar egin beharreko lana azpimarratu du Anak.

«Neguan mendi talde, ehiztari eta abarrekin egin behar da lan, eta inguruak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatu. Asteen zehar herrikoendako toki bihurtzea nahi dugu». Orobat, inguruak merezi duela diote maizterrek. «Herriaren aldeko apustua egin dugu. Lasaia da, errepidetik urrun, eta familiendako aproposa oso».

Doneztebe

Herri liburutegia inauguratu zuten ofizialki atzo arratsean

A.B / IRUÑA

Atzo arratsean zabaldu zen Doneztebeko herri liburutegia, herrian irekitzen den lehendabizikoa. Baina aurkezpen ofiziala atzo arte berandutu bazen ere, ordurako astebete zeraman zabalik zine gainean paratu den zentro berriak, eta zenbait ekitaldi antolatu dira dagoeneko. 2.100 liburu eta 20 bat aldizkari dituela, herrian irakurtzeko dagoen ohi-tura eskasa berpiztu nahi duela dio Marga Erdozain liburuzainak. «Kulturagune bihurtu nahi dugu liburutegia».

Udal langile hau izanen da liburutegiaren arduraduna, kontzertatua —hau da, udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko elkarlanetik abiatuta— baita zentroa. Bost hilabetez lanean, emaitzak ez dira falta izan, eta

joan den asteen eskoletako hiru-rehun bat haur egon ziren bertan, 3. mailatik 8. mailara bitarteko guztiak. Diapositiben bidez, liburuen eta liburutegiaren historia azaldu zitzaion, eta baita liburutegiaren funtzionamenduari buruzko zehaztasun guztiak ere: zer egin behar den bazkidea izateko, nola lor daitezkeen etxerako liburuak...

Asteartean Joaquín Balentzia idazleak mintzaldia eman zuen bertan, bere poesia azaltzeko, eta asteazkenean Fernando Presa 'Nandus-ek' bere bidaia liburua aurkeztu zuen. IKAn lan egiten duen irakasle honek Amerika bizikletan kurritu berri du, eta bidaiaren kontakizuna Txalaparta argitaletxeak kaleratu du, 'Ilargia lagun beti hegoalderantz' izeneko izenburuarekin. Heldu den asteen eskoletako 1. eta 2. mailako

haurrek bisitatuko dute kultur zentro berria.

Bistan denez, animo handia, eta gogo franko. «Ttipi-Ttapa aldizkaria eta Xorroxin Irratian liburuen laburpenak egin nahi ditugu, jendeak jakiteko liburutegia badela, eta euskal literaturari bultzada emateko». Apirilean ospatuko den Liburuaren Egunean, bestalde, liburua eta Nafarroako Gobernuak argitaratutako diptikoak atera nahi dituzte kalerari, eta mahaiak jarriko dituzte herrian. Lan hau burutzeko, Mendialdeko liburuzainekin koordinazioa azpimarratzen du Margak. «Elkarlanean asmatu dugu eta gauza politak egin daitezke. Adibidez, badugu asmoa EUSKALDUNON EGUNKARIA liburutegietan sartzeko, eta oro har, euskarazko liburuak zabalteko».

Iruña

Iaz baino 50 landetxe gehiago gida berrian

IRUÑA

Joan den asteen aurkeztu zen Nafarroako Landetxeen Gida berria. Bertan Nafarroako mendialdean banatutako 150 etxe biltzen dira —iaz baino 50 gehiago—, eta, oro har, 1.200 ohe. Zortzi ingurutan banatuta —Urbasa-Andia, Aralar-Ultzama, Bidasoa, Baztan, Orreaga, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari— gidak etxe bakoitzaren ezaugarriak, kokapena, prezioak eta zerbitzuak eskaintzen ditu, eta baita inguruan egin daitezkeen ekintzak edo erosketak ere. Joan den asteen Iruñean eta Donostian aurkeztu zen, eta aste honetan bertan Bilbon ziren aurkezpena egitekoak. Gida erdara hutsean argitaratu du Landetxeen Elkar-teak, eta 1.300 pezetan saltzen da liburudendetan. Erreserbak egiteko telefonoa 22 93 28 da.

Navarrieriako iturritik


Juan Kruz Lakasta

Enroilatuaren dekalogoia (II)

Aupiki, zer moduz? Ni txatxi pe, eta zu? Smuak. Klap, klap, klap, klap... Hori da, onomatopiaz laburbildurik, enroilatu batek taberna batean sartzekoan egin behar duena, hots, agur esaterakoan esamolderik berezian erabili, agurtzen duenari ezpainetan musu eman, eta agurren ostean edozein musika entzunda esku zartak jo. Gaur, ahoa irekitzerakoan edateaz gain enroilatu batek zer egin dezakeen eta zer ez azalduko dut. Egon badaude edozein elkarrizketatan maiz agertzen diren gaiak. Horien artean hiru aztertuko ditut, erabilienak hain zuzen.

3) Osasunazale amorratua izanda ere, jendaurrean enroilatu futbolaren kontra agertuko da. Erlijioa gainbehera doala, futbola da sistemak euskal langileriaren klase kontzientzia ezabatzeke erabiltzen duen opio berria.

4) Telebista ez da opioa; bada, baina, langileriaren patxarana, alienatzaile arinagoa. Telebista mintzagai delarik, enroilatuak soil-soilik kultur saioak ikusten dituela onar dezake. Bestelako saio batez mintzatzeko, lagun batek kontatu diola esan beharko du: «Lehen egunean lagun batek kontatu zidan 'Lo que necesitas es



amor-en' mar, mar, mar...».

5) Gemioaren saioan ateratzeko bezain jeloskorra izanda ere, enroilatuak amodioaz ari delarik erlazio irekiak defenditu behar ditu. Berak eta bere lagunak 'eskapa-dak' egitea bikotearen aberasgarri dela esan beharko du, laguna beste batekin egon daitekela pentsatzeak kakalarria ematen badio ere.

6) Azken aholku bat. Hiru ardatz horiek aintzat harturik norbait mintza-praktikan hasten bada, honako hau jakin dezala: Berdin dio enroilatuak zertaz hitz egiten duen, eta ongi pasatzen ari denen edo ez; hitz egiten duen bitartean tarteka-marteka barre egin behar du, jendeak primeran pasatzen duela ikus dezana.

Enroilatu al da txirukak eramatea? Eta panazko prakak jan-zea? Erantzunak jakin nahi badituzu, irakur ezazu 'enroilatuaren dekalogoia (eta III)' heldu den asteen zure Nafarkarian.

(Jarraituko du...)

Elizondoko Antxitonea trinketak ehun urte bete ditu aurten. Toki franko ezaguna Baztanen eta Nafarroa osoan, bertan zaildu dira pilotariak eta iaioitu dira bertsolariak. Orobat, ezteiak, Orakunde eguneko festak eta baita mitinak ere egin izan dira pareta zaharron artean, Baztango historiaren zatia baita trinketa.

«Trinketik? Antxitonea, doike!»

E.D. DE ULTZURRUN / ELIZONDO

Gure herrialdean trinket eza-gunik baldin bada, horixe Antxitonea dugu, Elizondoko Txokoto auzoan kokatua. Aurten ehun urte egin ditu, 1894an eraiki baitzuten, non eta Antxitonea deritzaion etxearen gibekeko aldean, etxearen atzeko paretari berari lotua. Zaharrena da, noski, Nafarroako trinketen artean, eta, pilotari famaturik edota bertsolari ospetsurik aritu baldin bada, Antxitonean izan da, dudarik gabe. Horra hor bi kirol, pilotarena zein trinketarena, toki horri estuki atxikituta, eta, trinketari izena, izen handia, eman dituenak.

Mariano Izeta jaun prestuari zor diogu, gehien bat, lerrootan paratu duguna, Elizondoko erlolaria trinketaren aitzinean sortu baitzen, Mutileanean. Erdian Baztan errekarren gaineko zubia dago, eta, elizondorra lekuko ezin hobea da, toki horrek baztandarren artean duen xarma konpreniarazteko. XIXgarren mendearen argia irauzitzeko, artean sei urte besterik gelditzen ez zirenean, bizkar besta egin zuten Txokoton trinketaren erakuntza festatzeko. Ipar Euskal Herrian toki frankotan baziren, alde honetan ez, ordea, eta, go-goan hartu behar da, gainera, Baztanaldeak hartu-eman estu-estuak zituela Banka, Bidarra, Aldude eta Urepelekin, batez ere.

Trinketa mugaz haraindikoa izanik, pilotan iaioenak ipar euskaldunak ziren, eta, jokatu diren partiduetatik, askok sona eduki badute ere, batek bereganatu du famarik handiena guzian artean, hots, 1992ko abenduaren biaz jokaturako honetxe, hain zuzen. Izeta jauna aski ongi oroitzen da egun hartan gertatutakoaz, artean, zazpi urte zituela. «Izigarria izan zen hura. Denak ziren mugaz bertzaldekoak, sekulako sosaldea jokatu zuten. Egin zituzten hain bi partida, eta, bana gelditu, eta, orduan, Antxitonea hautatu zuten gero azken partida jokatzeko, erabakitzeke. Sekulako jendeketa etorri zen, hainbertze jende berrua ezin sartuz, lekuri ez zelako. Bete, bete, bete dena, eta jendea kanpoan. Batzuk bikote baten alde eta bertzeak bertzearen alde. Eta txaloak egiten zituzten, han, karrikan, beren aldekoek eta tantua egiten zutelarik».

Partidu hura Dongaitz anaiek irabazi zuten, lapurtarrak, eta, galtzaileak, berriz, Leonis eta Artze zeritzaion pilotariak gertatu ziren. Ikusleen artean, senperdar bat zebilen, Jean Baptiste Millox jauna, eta, honetxe ber-

tsotan paratu zituen plazan ikusitakoak. Honatx lehenbizikoa: Huna pertsu berriak nik orai emanak, kantzuz deklaratzeko plekarien famak, elgar ezin bentzutuz izan tuzte lanak, azkenean, nausitu dire zaharrenek.

Danetara hamabi bertso dira 'Elizondoko partidaren gainean' paratutakoak. Hona hemen bertze hirur:

Partida hau izan da izagarrikua, bakan aditzen baita hau bezalakua. Trinketa hautaturik Elizondokua, han eginen zutela guziak jokua. Jean Baptiste Dongaitzena gizon famatua, ez baita maiz ikusten hoi bezalakua, berrogi urte adina eta ehun kilo pisua,

Biak galdu zituen, ordea. Dena den, Antxitonearen sona ez da pilotara mugatzen, bertsoen eskutik ere itzal handia etorri baitzaio. Paretak, egia erran, ha-

gorputza pisututa ilia zuritzen, bainan halere ez da batera izitzen, azkenean badaki kinziaren iten.

Geroztik ere, eginak izan dira, eskuz, pilota partidu sonatuak. Konparazio batera, 1928an, Sailegik eta Atano IVak, Dongaitz eta Mantzikoren aurka jokatu zuten, eta, azkenak irabazte gertatu. Arizkunder batek ere, Jaime Laralde, aski partidu politik jokatu zituen duela hogeita hamarren bat urte. Desafiozko partidua izaten ziren, esate baterako, Arranbideren aurka egindakoa. Arizkunderak irabazi zuten, baina, sakea beti zen harena, tantua galduta ere. Halaber, Txikito de Iraetaren kontra ari eta irabazi zuten, eta, baita Ximun Haran fama-tuaren kontra ere, bitan, gainera. Biak galdu zituen, ordea.

Dena den, Antxitonearen sona ez da pilotara mugatzen, bertsoen eskutik ere itzal handia etorri baitzaio. Paretak, egia erran, ha-

gorputza pisututa ilia zuritzen, bainan halere ez da batera izitzen, azkenean badaki kinziaren iten.

Biak galdu zituen, ordea. Dena den, Antxitonearen sona ez da pilotara mugatzen, bertsoen eskutik ere itzal handia etorri baitzaio. Paretak, egia erran, ha-

meka bertso eder entzunda dau-de, azkenak, iragan igandean berean. Mariano Izetak gogoan dauka pilota partidu baten atsedaldian, bi bertsolari aritu zirela kalerietatik, bata mutur batean, bertze bertze muturrean. Gerra aurretik izan zen hura. Eta, gerla zibila hasteko sei hilabete eskax gelditzen direla, Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehen aldian jokatu zen, non eta Antxitonean, noski.

1936ko urtarrilaren 12ko hartan, hamar bertsolari bildu ziren Elizondon, Euzko Gaztediak eta Baztango Euzko Etxeak antolatuta. Horietatik lau baztandarrak ziren: Pedro eta Juan Ibarra zigarrak, Juan Felix Iriarte Iruritakoa (Bankan bizi zena), eta Patxi Elorga lekaroztarra. Bertze bi Bankako semeak ziren, Martzel Larrosa eta Beltran Sahargun. Aldudetik Jean Harriet joan zen, Sunbillatik Simun Ibarra, Eltzaburitik Jose Mari Mutuberrria, eta Amaiurtik Mixel Dargaitz 'Punpulueta', Saran sortua zena. Antxitonean Felix Iriartek eskuratu zuten lehen postua eta bigarren, aldiz, ultzamarra, Mutuberria gelditu zen.

Egun hartako giroaz ez da ahantzi Izeta jauna. «Ze jendeketa bildu zen! Orduan ez zen altabozik eta deus ere. Oroitzen naiz, Antxitonean, taulak paratu zituztela, eta inguru guzian denak zutik, dena bete, bete, bete, plaza. Gero, gerra etorri eta hainbertze urtez deus gabe ibili ginen. Euskal kultura hondatua zegoen. Orduan, urteak joan ziren, urteak eta urteak, eta, piztu zen Principe

Antxitonearen sona ez da pilotara bakarrik mugatzen, bertsoen eskutik ere itzal benetan handia etorri baitzaio.

de Vianaren eskutik, eta, berriz ere, txapelketa antolatu zuten».

Bertsolari txapelketa, 1960an berriz ere abiatu eta handik bi urteren buruan hasiko ziren bertso bestak Elizondoko trinketean. Eta halaxe antolatu zituen Mariano Izetak, urtero-urtero, hamalau urtez huts egin gabe. Antxitonea bete egiten zen, eta, garai hartako bertsolaririk hobereenak deitzen zituzten. Bertso saioa antolatzeke ez zuten baimenik eskatzen. karteletan 'Principe de Vianak antolatutako bertso besta' idatzi,

Pilota partida baten atsedaldian bi bertsolari aritu ziren kalerietatik, bata mutur batean, bertze bertzean.

Bertso saioak antolatzeke 'Principe de Viana' paratzen zen karteletan, baina erakundeari ez zitzaion deus erraten.



Pilota partidak eta bertso saioak ezelegin dira trinketean.

'PELOTARI'

eta horrekin aski izaten zen gerta zitezkeen arazoak galerazteko. Principe de Viana erakundeari, ordea, ez zitzaion deus erraten. Alabainan, urte batez, gobernu deak bete egiten zuten trinketa, zibilean, bada ez bada, baimena eskatu, paperak bete, permisio eman, eta bi goardia zibil agertu ziren Antxitonean, bazterrak be-

giratzera. Horrexegatik, handik aitzinera ez zuten berriz ere eskatuko. Arestian azaldu bezala, jendeak bete egiten zuten trinketa, leporaino gainera. «Jende aunitz eskatu, paperak bete, permisio eman, eta bi goardia zibil agertu ziren Antxitonean, bazterrak be-

tzen zuten. Antxitonean berean bazkaldu, eta sosa irabazten genuen. Gero, 64an edo, Uztapide bertsolariak eskribitu zuten karta bat. «Zu, adixkide Mariano, gauzak ere ari dira garestitzen eta pixka bat gehiago kobratu beharko dugu...» eta bertsolariei 300 pezeta eman genien, eta sarrerak garestixeago jarri. Bertsolariak, beti ere, pixkeka, pixkeka, hasi ziren urtero gero eta gehiago kobratzen, eta, 76an edo, jende gutixeago agertu zen trinketera eta utzi genuen».

Horra hemen kontu Antxitonearen gainean. Aipatu beharra dago, bestalde, hiruzpalau urtez dantzaldia izan zela, sarrera kobratuta, eta ezkontza franko ospatu izan dela barruan, baita mitin bat edo beste ere. Azken horietatik bat Errepublikara garain egin zuten, 'mitin-controversia' moduan EAJk antolatuta. Halere, pilota eta bertsoa izan dira nagusi, joan direneko ehun urteotan. Gaur egungo nagusia Tomas Ugaldela da, amaiurtarra. Bai horrek, bai bortzehun lagun gehiagok ere parada izan zuten Elizagoien arraioztarrak joan den igandeko txapelketa saioan Antxitoneari eskeini zion bertsoa dituzteko:

Zu izan zara hainbat ta hainbat pilotarin harrobia, zu izan zara bertsolarien babesa eta kabia, zu izan zara euskal kulturaren zimendu ta oinarria. Gu zerbitzatzen aurten betetzen dituzu ehun urte ia, bihotz-bihotzez mila zorion trinkete maitagarria.

«Oinarrizko jokoa pilotarientzat»

A.B./LE// IRUNEA/BAIONA

Gaur egun ahantzi eta bazterturik, trinketa frontoia baino franko zaharragoa da Nafarroan, frontoia —hitza eta eraikina—, joan den mendearen erdikoa baita. Pilotan, betidanik, herriko plazan, kalean, klaustroan, jau-regi baten korridorean, larrean edo ordoki batean jokatzen zen pilotan. Toki batzuetan, eguraldiaren gora-beherak saihesteko, trinketa edo toki itxia eraiki zen. Azken finean pilotan aritzeko gela handi eta itxi bat zen, ez besterik.

Pilotaren inguruan ezagutzen den lehen aipua 1331. urtekoa da, eta bertan aipatzen da Felipe de Evreux erregeak Pedro Olaiakoa zurginari bidalitako agindua, Iruñeko Dominikoen komentuarren klaustroan zurezko tribuna berri bat egin zezan. Berandua-gokoak, baina ugariak dira mota honetako trinketei buruz historian zehar jaso diren aipamenak. Isidoro Ursuak, Cuadernos de Etnografia sailean argitaratutako 'Anecdotario Pelotazale del siglo XVII' artikuluan, horren berri zabal eta ugari ematen du, Iruñeko Diocesiko Artxiboa abiapuntutzat hartuta. Izan ere, garai honetan hain zabaldu zegoen jokoa, Elizak epaiketa ugari egin behar izan zituen herrietako apaizen aurka, pilota partiduek 'etsenplu txarra' ematen zutelako, eta horietako batzuek borroka eta istilu asko sortzen zituztelako.

Pascual Madozek, bere hiztegi geografiko-estadistikoan, 1850. urtean Iruñean pilotan jokatzeke zeuden tokiak azaltzen ditu. Bata, Juego Nuevo izenekoa, egungo frontoiaren plantakoa zen, eta besteak, trinketa. «Harlauzako gela ederra da, beheko eta goiko tribuna birekin, ikusleentzat, eta gehiago erabiltzen da neguan eta urte gutziko egun euritsuetan». Halaber, Jose Joaquin Arzurik aipatzen du Jaraute kalean trinket txiki bat bazela, eta baita San Agustinen ere. Biak joan den mendearren hondarreen desagertu ziren.

Hain ezaguna eta ohizkoa izan zena, baina, galdu egin da egun. Nafarroan hiru badira oraindik, Antxitonea kenduta: Iruñeko Oberena eta Tennis elkarteak, eta Lekunberrikoa. Javier Etulain adituaren arabera, badira Orbaiztetan, NARBARTEN eta Lizarran bertan ere trinketaren arrastoak. Egun ezaugarri bereziak ditu trinketak. Eskuineko paretak itxia dauka, eta ezkerrekoan metro bateko zurezko teilatutxo, pilota hortik irrista dadin. Batzuetan gibekeko paretaraino heltzen da. Modernoan erakundearen eskuekin paretak kristalezkoa da, ikusleak bertan jar daitezke. Luzera 28 edo 30 metro ditu, eta 8 eta 10 metro bitarteko zabalera.

NAFARROA BEHEREAN HAMAHIRU

Nafarroa Behean, pilota jokoa urteko parte gehienean trinketetan iragaiten da, udan plaza laxora atera artean, herrietako festen kariatara batez ere. Ezkerreko paretak izan arren, trinket jokoa da jendeak gehienik maite duena. Hainbestaraino non pilotazale askorentzat hor baizik ez den agertzen «egiazko pilota».

XIXan da eraiki zaharrena Donapaleun, Frederic de Saint Jayme pertsonea aberatsak eraiki zuen bere diruz 1891.ean. Bada ustea trinketen egitura hori Frantziara, batez ere Parisen egiten zen 'Jeu de Paume' jokorako erakuntzetariki datorrela; hori dio Jean Urruti Donapaleuko pilotari handiak. Beste hainbat jokoren antzera Euskal Herriko ohituretan zehar jaso diren aipamenak. 'Xiloa' edo 'izkin motza', joko biziaren sortzaile dira.

Azkenik estreinatua den trinketa Duzunaritzeko da, joan zen urtarrilaren 16an. Une honetan Amikuzeko Behauze, Gabadi, Oragarre, Behaskane eta Donapaleun, trinket gehienik duen eskualdea da. Garazin ba-

daude Duzunaritze eta Donibanen. Arberu aldean Aiherra eta Isturitzen badira. Ostibarreko bakarra Larzabalen da, Olharan trinket aipatua. Bidarrain ere bada bat. Orotara 13 dira. Trinket gehienak aski berriak dira baina biga dira ororen gainetik Iparraldeko pilotaren historiari josiak, Donapaleuko, 1891.ean eraikia, abere portuan dena, eta Donibane-Garaziko Garatenia, 1937an egin.

Gaur egun Garatenia da aipatua, Garaziko Goizeko Izarra pilota elkarrean sorgunea baita. Esku-huska aspaldian maisu den elkartea da eta hortik txapel-dun ia guziak. Nahiz joko garbiko pilotari handi ezagutuenerik izan den, Jean Urruti donapaleutar pilotariak trinketean ari izan dela azpimarratzen du: «Garaiok hartako profesional guzien kontra ari izan nintzen, Dongaitz aita-semeak, Haranbillet, Edouard Hayet eta besteekin kontra». Trinketeke jokoz «politena» dela dio: «Xilo, izkin motz eta sarearrek, bizia eta izuz ikusgarria da». Gehitzen duenaz «oinarrizko jokoa da pilotari handi guzientzat».



BURLATAKO UDALA

EUSKARA BATZORDEA

● MARTXOAK 14-18 (biak barne)

ERAKUSKETA ETA HITZALDIK: «Bertsolaritza lehen eta gaur». Goizetan ikastetxeetako ikasleak pasako dira. H. Eslava kontserbatorioa. Dantza Gela (azken solairua)


● MARTXOAK 20, IGANDEA

DANTZA TALDEAK, GAITARIAK ETA TXISTULARIK. Elizako Plazan Meza Nagusiaren ondoren. HERRI BAZKARIA BERTSOLARIEKIN BATERA. Askatasuna Pilotalekuan, arratsaldeko ordu bietan. Txartel salmenta: Zumadi, Unzu, Batzoki, Gorosti. Euskara Batzordea.

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETAREN FINAL-AURREA

«Elizgibela» Kiroldegian, arratsaldeko 4.30etan. Saran eta Elizondon klasifikaturiko bertsolariek hartuko dute parte. Txartel salmenta Burlatan: Axular, Gorosti eta takilan txapelketa hasi baino ordu bat lehenago.

Final-aurrean haurtzaindegi zerbitzua izango da.



Antxitonean oraindik gaur egun pilota partidak badira. J.M. ONDIKOL




Nafarroa Behean da ezagunena trinketa.

'PELOTARI'



XAKEAN



Nafarroako Banakako Xake txapelketako zazpigarren ihardunaldiko partida, 1994ko martxoaren Sean jokatu.

J.M. Perez Reclusa (1.995 ELOkoa, 6. rankingean) — Eduardo Ridruejo (1.980 ELOkoa, 8. rankingean).

1.e4, c5; 2.Zf3, Zc6; 3.d4, d4; 4.Zd4, Zf6; 5.Zc3, e5; 6.dZ-b5, d6; 7.Ag5, a6; 8.Za3, b5; 9.Zd5, Da5 xa; 10.Ad2, Db8; 11.Ag5, Da5 xa; 12.Ad2, Dd8; 13.Zf6, Df6; 14.Zb1, Dg6. Beltzen esparrua sendotasunik gabekoa da. Puntu ahulak ditu, alfíl bat itxita, endroka burutu gabea. 'Ae3' egokiagoa zen, denborarik galdu gabe. 15.Zc3. Ikus koardoa. Beltzek amarrua prestatu dutela uste dute. Baina haiek dira segadan jausiko direnak. Ondoren, gainera, ez dute atsedetik hartuko.

15... b4; 16.Zd5, De4 xa; 17.Ae3, Ed8; 18.f3, Dg6; 19.Ab6 xa, Ed7; 20.g3, Ab7; 21.Ah3 xa, f5; 22.Dd3, Ze7; 23.Ze7, Ee7; 24.Af5. Emandako peoia berreskuratu dute txuriek. Hori gutxi balitz, posizioak nagusitasun handia adierazten die. 24... Df6; 25.Ae4, Ae4; 26.De4, Gb8; 27.Dc6, Ef7; 28.f4, Ae7; 29.0-0, e4; 30.f5, hG-e8; 31.Dd5 xa, Ef8; 32.Ad4, Df7; 33.De4. Dagoeneko, peoi bateko abantaila. Baina erasoak ez du etenik. 33...Af6; 34.Df4, Ae5; 35.Ae5, e5; 36.Dh4, Eg8; 37.f6, g6; 38.aG-e1, Gb6; 39.Dg5, eG-e6; 40.Ge5, Gf6; 41.fG-e1, fG-e6; 42.Dd8 xa, Eg7; 43.Gf1, Dg8; 44.Dd4, bG-d6; 45.Gd5 xa. Oso garaipen distiratsua. Beltzek behin garrantzirik gabekoa zirudien azaleko hausnarketa egin, eta gudaroste osoa etorri zitzaizen gainera, erabat zapaldu arte.


Afrikako gizona

Kigeimuluko herrixketakoa naiz, Afrikan. Gaur egungo Rwanda, Tanzania eta Burundiren arteko mugetan dago kokatua. Garai hauetan 'gizon txuria' deritzaguna ezaguna daukagu. Ez da oso arrunta baina batzuetan lurralde hauetara etortzen da esklabu bila, eta dagoeneko nere adineko bakarra naiz. Hau oso garrantzitsua da, aurtan hamasei uda betetzen bait ditut.

Nahiz eta gizon txuria gure lurraldeetan barna sartua izan, oraindik ere gure aintzina arbasoen ohiturak gordetzen ditugu. Hamaseigarren udarekin batera gure herrixkan hainbat errito burutzen ditugu. Lehenengoa zirkunzidazioa da. Hau eginda daukat eta zauria sendatuta ere, eta orain atal arriskutsuena dator: lehoiaren ehizarena. Ohiturek diotenez lehoiak arra izan behar du eta aitzamakilaz eta erredolaz soilik hil behar da.

Ordua heldu da; sabanaren erdialderuntz abiatu behar dut lehoi bat hiltzeko. Egun osoa daramat ibiltzen eta erabakitzen dut bazkalteza. Boabad' baten gerizapean esertzen naiz, zerbait jatekotan. Oraindik ez ditut ezta gauz guziak poltsikotik atera non ehun bat metrotara orru bat entzuten dudan.

Geldi eta adi geratzen naiz, zerbait ikusteko asmoz. Hara non agertzan zaidan ba lehoi har bat, berrehun bat kilotakoa. Denbora galdu gabe aitzamakila eta erredola eskuratzen ditut eta poliki poliki, eta ixiltasun gorenez, hurbiltzen natzaio.



Nestor Martinez

BARAÑAIN

Hogeiabost metro oraindik ez ditut ibili, lehoiak bapatean buelta ematen duenean, eta bere begi txiekiek, eguzki izpiak bezala, begiak zultzen dizkirate. Momentu batengatik hanketan gogordura sentitzen dut, baina lehoia berriz mugitzerakoan esnatu egiten naiz, eta nere barne indar guztiakin aurre egiten diot. Biok elkarrengana hurbiltzen ari gara, mesfidantzaz. Biak 25 metrotara gaude, non lehoia korrika hasten den. Nik ez daukat ia mugitzeko astirik eta begiak itxita, erredolaz esaltzen naiz eta aitzamakila lehoirantz



zuzentzen dut. Honek jauzi egiten du eta aitzamakilaz bihotza zultzen diot.

Konturatzen naizenerako berrehun kilotako basapitzia soinean daukat, hilik, odoleztatua. Ahal dudan bezala behetik irristatzen naiz eta herrixkarantz zuzentzen naiz. Herrixka osoa zain daukat eta alaitasun aurpegiak nonnahi ikus ditzaket.

Gizon txuria berriz etortzerakoan badago gudari bat gehiago.

Jon Mirande (I)

Iritziak berezi dabilta. Mirandek mingaina askatuaxe zekukan, eta bere pentsakeraren nondik-norakoak ez zituen esankizun utzi. Nork ez du begitan faszismoa gutxi edo gehiago Europa zehar honetan? Hola ere, ze irakurlek arbuia lezake zipli-zapla, ezker-eskuinez Mirandek idatzi zuen guztia, euskal literaturan idatziriko pasarterik ederrenetariokoak egonez? Jon Mirande Aiphasoro paristarra dugu. Aita atezain hotel batean eta ama neskame. 30 metro karratuko etxe batean bizi ziren. Lekurik ezean, arreba Zuberoara igorriko zuten hazitzera. Neska koz-

korturik zegoelarik, Parisa itzuliko zen eta euskaldun hutsa zen. Metroan eta euskara egitean arrotzat hartzen zuten. Euskaraz mintzatzeari utziko zion. Garai hartan Jon anaia aldrebesko bidea egiten ari zen, baina bere arreba bezala azkenean euskara arbuizatzen bukatu zen. 20 urterekin euskara ikasteari ekin zion, eta horrekin batera Europako jatorrizko hizkuntza guztiak: gaelikoa, kanbrikoa, konikoa, eta abar.

Ostegunero 'Les Societes Savantes' izeneko ostatu batean adiskideekin biltzen zen meza zeltiarrak egiteko. Mi-

JUANTXO URDIROZ



20 urterekin euskara ikasteari ekin zion Mirandek, eta horrekin batera Europako jatorrizko hizkuntza guztiak.


rande druida aritzen zen. Behin, Kataluniako Generalitat-ek antolatutako 'Jocs Florals-ak' Sorbonan burutzen ari zirelarik, Frantziako himno nazionala sonatu eta Mirande ez zen zutik jarri. Gaizki esaka eta garrasika hasi zen. Frantziako kultur ministroa han izanik, ixilarazten saiatu zen. Mirandek zera aurpegiratu zion: «Frantziako ikurrina Rennes, Toulouse, Baiona eta Perpignaneko aldean den bitartean, ez gara zutik ipiniko Marsellesa himnoa aditzean». Parisen EAJk antolatutako 'Aberri Eguna' batean, abertzaleen aurrean erderaz zera esan zuen, Iparraldeko euskaldunen izenean: «Señoras y señores, su política me hace decir a mí: España, una, grande

y libre. Arriba España, Viva Franco». 'Figaro' egunkarian ohartxo bat ageri zen dirua eskatzen arrisku moralean ziren neskak salbatzeko asmotan, prostituziotik begiratzeko. Mirande jaunak iragarki bat ezarri zuen, neska begiurdin, ile gorrikoa, altua eta birgina behar zuela esanez, heziketa debalde emango ziolako abisuarekin. Jean Mari Le Pen faxista eraberrituarekin badu argazkiren bat, baso bat eskuan kontu-kontari.

Informazio iturria Eduardo Gil Berak 'Haur besotakoa-ren' itzulpenerako eginiko hitzaurrea da, Pamiela argitaletxean atera zena. Guk dakigula, orain arte Miranderi buruz idatzi den biografirik sendo eta leialena da.

I oan den larunbaten inauguratu zen Obanosen Orvalaiz kooperatibaren ardandegi berria. Mahastien ohizko eremuko iparraldean, Izarbeibar eta Estellerriko 46 bazkide biltzen dira bertan, inguruan mahastiak berreskuratuta. Beltza da ekoizpen handiena, Errioxa aldean erabiltzen den mahasti nahasketaren parekoa.

Berriro ardoari emanak



Enologo bakar bat arduratzen da, denbora osoz, ardandegiaz.

JOSEBA BEITIA

PATXI ULAIAR / UKAR

Orvalaiz Kooperatibaren historia duela bederatzita bat urte hasi zen, Izarbeibarren mahastiak errekupezeari ekin ziotenean. Ez baitzen sobera. 1960tik aurrera izan zen laborearen gorakadak eta Iruñerriko industriak herri hauetako asko jendez hustu zi-

tuen, eta gelditu zirenak gari eta garagarrarekin gelditu ziren, gariak onak baitziren horretarako. Orduan desagertu ziren inguruko mahasti gehienak, eta enbor zaharren marroiak eta mahatsen gorriak gariaren horiari utzi zioten tokia. Duela hamar bat urte, baina, Europako erreformak eta ardoaren arloan zeuden aurrikus-

pen onak bultzatuta, mahastiak hasi ziren berriro ere zabaltzen inguru osoan. Kooperatiba sortzeko, baina, gehixeago itxaron behar.

1992ko martxoan, Izarbeibarreko ehun mahastizain deitu eta kooperatiba osatzeko ideia sortu zen, prozesu osoa beren eskuetan

geldi zedin. «Bitartekarien eskuetan geunden», azaldu du Carlos Ioldi nekazariak, «nahi zutena ordaintzen zigutelako eta kobratu, 15 hilabete pasatuta kobratzen genuelako». Hala ere, mahastia laboreak ematen dituenaren osagarria baino ez da, oraingo. Ioldik egun 55 hektarea labore lantzen ditu, eta 3,6 hektarea mahasti. «Gariak lau edo bost hilabeteko lana ematen dizu, eta mahastia aparta da osagarri gisa, orain dagoen tresneriak izugarriko denbora kentzen dizulako».

Izan ere, paratutako mahastiak enparatuak dira, hau da, euskarri batekin gorago igotzen direnak. Makinak, gainera, dena egiten du, eta lehen astebete behar bazen, egun lau ordutan egiten dela dio Ioldik. Kooperatiban 46 bazkide daude bilduak, gehienak Izarbeibarrekoak, baina baita Estellerrikoak ere —Iguzkitza-Oteitza, Arellano—, eta denen artean 2.136 arrobada biltzen dituzte. Aurtengo produkzioa 900.000 kilokoa izan da, horrela banatuta: 450.000 kilogramo beltza, 200.000 kilogramo gorria, eta 15.000 kilogramo txuria.

ARROBADA KOPURU EGOKIENA

Larunbatean egin zen inaugurazioarekin batera, salmentari ekin zitzaion, nahiko iragarpen onekin gainera. Izan ere,

egun duten arrobada kopurua egokiena da ardandegia aurrera eraman ahal izateko, nahiz eta eraikuntza hasi zenean horren erdia besterik ez eduki. «Nahi genuen Muruzabal eta Obanoskoak ere gurekin sartzea, baina azkenean ez ziren sartu. Hala ere, urte hauetan arrobada kopurua gehitu ditugunez, egun kopuru egokian gaude».

Kooperatiba Obanosen dago, nahiz eta hasieran Izarbeibarra izan toki aukeratua. Azkenean, eta Nafarroako Mahastizaintza eta Ardozaintza Zentroaren (EVENA) gomendioz, Iruñea eta Logroño bitarteko errepedetik gertu paratzea erabaki zuten. «Errezeloak sortu ziren hasieran, baina arrozoi osoa zuten», aipatu du Ioldik «larunbateko inauguraziora azaldu ziren gehienek tokia azpimarratu baitzuten».

Horrelako lana dakarren kostuari aurre egiteko Orvalaiz Nekazaritza Kooperatibaren laguntza izan dute mahastizainek. Laguntza aparta. «Haien lokalak eta azpiegitura aprobetxatu dugu, eta haiek duten pisu handia ere oso baliagarria izango zaigu». Kooperatiba Orvalaiz Nekazaritza Kooperatibaren adar bat da, eta luze gabe gereziak biltzeko beste kooperatiba osatuko da, Etxauri aldeko nekazariak eta Nafarroako nekazaritza talde handi honen barruan baitaude.

«Beltz aparta»

P.U. / UKAR

■ «Etxeko guztia aparta zaigu beti» dio Ioldik, «baina ardandegi honetako uzta benetan aparta da». Eta hala behar du, bi arrazorengatik. Lehendabizi, mahastiak ez dira garnatxa motakoak, Nafarroako ia zona guztietan gertatzen den bezala, eta mahats goiztiarra (% 56), Cabernet Sauvignon (% 35) eta Merlot, garnatxa, Mazuelo, Viura eta Malvasia (% 14) motakoak dira ardo egiteko erabiltzen direnak. Errioxa aldean erabiltzen diren mahastiak, hain zuzen ere. Mahats goiztiarra da apreziatuena, Cabernetarekin batera, baina hau gehiago erabiltzen da ardo erreserbakoak osatzeko. Horregatik, hain zuzen ere, kooperatibaren ekoizpen handiena beltza da. «Errioxan erabiltzen diren mahats mota berberak erabiltzen baditugu, aldaketa txikia izanen dira hango ardoekiko, soilik eguraldiak eta enologoaren eskuak

alda baitezakete emaitza».

Izan ere, martxoko zenbakian, Nafarroako ardo beltzak Errioxakoen mailara heldu direla aipatu du 'Wine' ardoari buruzko aldizkari ingelesak. Bertan azpimarratzen da beltz on bat egiteko ia ezinbestekoa dela mahats goiztiarren eta Cabernet-Sauvignonen arteko nahasketa, eta

Errioxan erabiltzen diren mahasti mota berberak erabiltzen ditu Orvalaizek ardo egiteko.

hori da, hain zuzen ere, Orvalaiz egin dutena.

Lan guztia aurrera eramateko enologo bat denbora osoz kontratu du kooperatibak, eta bera arduratzen da prozesu osoaz. «Ohizkoa da denbora erdizkako

enologo bat kontratatzea, baina guk gerente lana egin dezan langilea nahiago izan dugu. Horrela, berak egin du uzta bilketa osoa, bera arduratzen da laboratoriaz eta orain ere publizitateaz eta promozioaz arduratzea nahi dugu. Hori baita borroka».

Lehia oso handia den arlo batean, bere toki eta esparrua bilatzea da ardandegi berriaren egin beharra. «Honek ez dauka zerikusirik laborearekin» aipatu du Ioldik, «han prezio zehatza baitauekazu, ez dago besterik». Horregatik, komertzializazioa lehia handia dela azpimarratzen dute bertan. «Gure merkatua Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoa da, eta hortik jo behar dugu». Produkzioa osoa ez dute ardandegian bertan salduko, komertzializaziorako zerbait gordetzearren, eta hori lortzeko kopuruak paratu beharko direla aipatu zuten larunbatean arduradunek. Halaber, ardo erreserbakoak egiteko asmoa daukate bertan.



Mahastiak berreskuratuta dira Izarbeibarren.

«Animatuegi daude intsumisoak»

A. BARANDIARAN / IRUÑEA

EGUNKARIA.— 1971ko urtarilean, Armadari uko egin zenean ez zegoen horrelako ezer eta lehena izan zinen. Nola gogoratzen duzu hori guztia?

PEPE BEUNZA.— Dena hasi zen Frantzia zegoen talde batekin 1966an izan genuen harremanaren ondorioz. Talde hori Gandhiren jarraitzaile batek sortua zen —ohartu zaiten nondik datorren afera!—, eta eragin handia izan zuen gu-

ongi eramateko lagungarriak izan zitzaizkidan gauzak.

EGUNKARIA.— Hiru urte t'erdia egon zinen barruan. Espero baino gehiago?

BEUNZA.— Garai hura oso iluna zen borrokalari guztientzat. Eta nik egin nuena ezin da bereiztu garai hartatik. Barruan elkartu nintzen gerra ondotik hogeitau urte kartzelan eman, atera, borrokatu, eta berriro barruan zegoen jendearekin, eta animatuak zeuden. Orduan, nire zigorrarekin, derrigorrez animatu behar nuen nik ere.

genuela, baina greba orokorra eta eragozpenaren bidetik.

EGUNKARIA.— Zer gelditzen da gaurko intsumisoen artean zuek hasi zenuten bide eta gogo hartatik?

BEUNZA.— Orduan hasi genuenari jarraitzen diote gaurkoek, nik uste. Duela 20 urte mintzaldi bat eman nuen Iruñean eta ostiralean esan nituen antzeko gauzak esan nituen orduan. Gure leloa berbera da: onargaitza dela agintzen ikastea, armadek bakarrik botere-tsuen interesak defenditzen di-

minberagoak diren inguruetan. Horretaz gain, Iruñeko epaileak beste tokietakoak baino askoz ere gogorragoak dira, eta euskaldunek beti izan dute borrokarako grina berezia. Bazen garaia bakearen aldeko borrokalariak izateko! Jende gogorra da.


EGUNKARIA.— Nola ikusi zenuen barruan dagoen jendea?

BEUNZA.— Oso animatuta, animatuegi akaso. Kanpoan gauzak ez dira barruan bezain baikor ikusten, baina, tira, gaurko egoera baikor izateko modukoa da.

EGUNKARIA.— Soldadutzaren kontrakoa gaur egun egiten ari den borrokarik garrantzitsuenak dela uste duzu?

Pepe
Beunza

INTSUMISOA



Asteburu honetan Iruñean egon da Pepe Beunza.

regan. Unibertsitateko gazte batzuk ginen, istilu guztietan sartuta, eta ideia berriak onartzeko irrikan. Harreman hori, guretzat, kolpe handia izan zen. Hortik aurrera 'numeroa' hemen prestatzeko adorea hartu genuen.

EGUNKARIA.— Zeri zenion beldur handiena: kartzelaldia-ri, epaiketari...?

BEUNZA.— Txarrena etorkizuna zen, urte askotako espetxe zigorra antzematen zelako, hondorik gabeko putzua. Prestaketa gogorra egin nuen hori guztia jasateko, eta ikasi nituen espetxeo bakardadea

Garai hartan borrokarako kontzientzia oso handia zegoen, eta borrokalariak gogor-rrak ziren.

EGUNKARIA.— Nola hartzen zuten zure jarrera Francoren kontra hainbat urte borrokatu-takoek?

BEUNZA.— Oso harrিতa gelditzen ziren, eta politikoki ez ninduten onartzen. Pertsonalki bai, unibertsitatean borroka horretan ibilia nintzelako. Gure mintzairak oso parekoak ziren, baina garai hartan borroka armatua oso mitifikatua zegoen. Nik esaten nuen ezetz, sistemaren kontra joan behar

tuztela, gerra guztiak jende xumeak jasaten dituela, eta bonba atomikoaren ondotik desarma-rea dela bide bakarra. Hori guztia baliagarria da oraindik gaur egun.

EGUNKARIA.— Bartzelonako distantziatik nola azal dezakezu Euskal Herrian mugimenduak daukan arrakasta?

BEUNZA.— Espainiako historiaren ondotik soldadu bat ikusi bezain laster jende askok alde egiteko gogoia sentitzen du. Estatu kolpeak eta herria zapaltzeko borondatea izan duen armada da hau. Horrek eragin handiagoa dauka politikoki

«Niri berdin zait fusila aurrean paratzen didana soldadu profesionala edo boluntarioa izatea».

BEUNZA.— Gustatuko litzaidake... Jende gehien atxikitzen ari den borroka da, eta sistema osoa zalantzan jartzen ari da. 'Armadari ez!' esateak botere asko kentzen dio Estatuari, bere armarik indartsuena ahultzen duelako.

EGUNKARIA.— Eta soldadutzaren desagerpenak intsumisioaren desagerpena ekarriko du?

BEUNZA.— Borroka askoz ere luzeagoa da. Niri berdin zait fusila aurrean paratzen didana soldadu profesionala edo boluntarioa izatea. Nire borroka askatasunaren alde eta desarmarean aurka da.

EGUNKARIA.— Hori da utopiarik utopikoena...

BEUNZA.— Jakina, baina horregatik borrokatzen da jendeak, eta horregatik joaten da kartzelara. Ez da joango ezer balio ez duen gauza batengatik.

SOSLAIA

Lehendabizikoa

1971n, abizen nafarra duen andaluziar honek Genebatik Valentziaraino heldu zen mar-txa abian jarri zuen, armadari ezetz esaten lehendabizikoa izateagatik. Europa osoko laguntza jaso, hiru urte t'erdia eman zituen espetxean, bi gerra kontseilu tartean. Hamar presondegitan izan zen, eta gaur, egun, 23 urte geroago, berdin pentsatzen du. Katalunian bizi da eta handik inbidiaz ikusten du Euskal Herrian berak hasitako mugimenduak izan duen erantzuna. Joan den asteburuan Iruñean izan zen, preso dagoen intsumiso bat bisitatzen, eta berriro sartu zen espetxe batera. «Oroitzapen asko izan nituen» dio, «kartzela guztiak berdina baitira barrutik».

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

